

BELDURRAK AURPEGI ASKO DITU.
MAITASUNAK ERE BAI.



ZURE MUNDUA HAUSTEN DENEAN,
NON EZKUTATZEN ZARA?

TITI KOR NIO

IRATI GARMENDIA



Titikornio

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Egileak literatur sorkuntza sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren laguntza jaso du liburu hau idazteko.

1. argitalpena: 2026ko irailean

Azaleko irudia eta diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Asier Beltza

© Irati Garmendia

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-135-0

L.G.: D 718-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia


Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Titikornio

Irati Garmendia

erein

*Amari,
zaugarri azaltzea
ausardia-ekintzarik handiena dela erakusteagatik.*

*Amaren amari, amonari,
onarpenaren benetako zentzua erakusteagatik.*

JUNE

Lurrunez bete da bainugela. Hamar bat minutu daramatza Junek ur txorrotaren azpian. Epel, goxo. Begiak itxita, urak bere gorputzean egiten duen ibilbideari erreparatzen dio. Gaurko korrikaldian egin duen denbora markan pentsatzen du. Hobetu egin nahi du, bada urtebete Behobia prestatzen dabilela eta finkaturiko helburuetara iritsi nahi du.

Mendafin usaina... xaboi hori maite du. Amaren lorategia ekarri dio gogora. Sendabelarrez beterik izaten zuen amak lorategia, erramua, erromeroa, mihilua... eta mendafina. Mendafinak sendatzen zizkion asunez eginiko erredukak. Ahapean ari da kantari, irratian bere abesti gustukoena ipini duten arte. *It's my life, It's now or never!*, uste baino ozenago. *Hau lotsa!* Atsegin du abestea, ez horrenbeste besteek entzutea. Isilean jarraitu du, musu gorrituta; bere melodia Kattalinen negarrak hautsi duen arte.

Ziztu batean gorputz osoa xaboitzeari ekin dio; hankak, hankartea, sabela, bularrak... eta besapera iristean

mundua isildu da. Urak epel jarraitzen du, baina izoztu-tako ur baldekada baten antzera nabari du orain. Txorrota itxi du. Eskuoihala hartu eta bizkor-bizkor lehortu da. Hankak, hankarteak, sabela, bularrak... hor pausa bat egin du. Besapetik arin pasatu da besora. Arnasa bera ere azkartu zaio.

Kattalinek atea ireki du orduan eta besoak luzatu dizkio amari.

KONTXI

Txirrina entzun da. Ozen, zaratatsu. Igogailua libre dago, baina nahiago izan du eskaileretatik igo. Gaur ez zaio lau pareta esturen artean giltzapetzea komeni. Hankak dardarka baditu ere, nahiago izan du eskailera maila bakoi-tzeko oinpean bere pisua nabaritu.

Lehenengo koska.

Geldialdia.

Bigarren koska.

Arnasestua.

Pauso eta pauso artean arnasa bizkortzen ari zaiola ohartu da. Eskua hormaren kontra jarri eta geldialdi luzeagoa egin du. *Zahartzen ari naiz!* Pentsamendu horri toki gehiegirik egin gabe azken solairura arte iritsi da. Atea zirrikitu batez irekia topatu du. Guztiz zabaltzearekin batera bertan da June. Bertan du alaba.

Hitzik esan gabe besarkatu dute elkar. Besarkada luzea izan da, ohikoa baino luzeagoa, estuagoa. Alabari be-soa bizkarretik astiro-astiro pasatzen dion bitartean, Junek

amaren sorbaldan ipini du bekokia. Txikitan ematen ziztuzten besarkadak etorri zaizkio burura Kontxiri.

Ilea berriki urdintzen hasi bazaio ere, beti izango dira bere txikiaren besarkadak.

Juneri malko batek egin dio ihes, gazi nabaritu du ez-painean. Amak segituan lehortu dio mahukaz eta alabaren aurpegia bi eskuekin jasotzearekin batera, begietara begira ipini zaio. Ez du txintik ere esan, baina nahikoa izan da bien arteko elkarrizketa mutu hori. Nahikoa, Juneke aurretik duen egunari indarrez heltzeko.

Barrura sartu dira ama-alabak elkarri eskua emanda. Etxea isilik dago, oso isilik. Isiltasun tenkatu bat da, mugimendurik txikienarekin hausteko zorian dagoena. Kattalin arineketan hurbildu zaio amonari gosaria mahaian utzita.

—Amona! —oihu egin eta lepotik zintzilikatu zaio biloba.

Kontxik besotik zintzilik zekarren poltsa aulkian utzi eta besarkada itzuli dio bere sagutxoari. Horrela deitzen dio oinez ikasi zuen egunetik. Esnetan bustitako galleten usaina dario.

—Jango zintuzket, sagutxo!

Markel, bizkar-zorroa soinean, ate ondoan dago jada, institutura abiatzeko prest. Jertsearen kremaiera estutu eta ezer esan gabe atea zabaldu du. Ama muxu bat lapurtzen saiatu da, behar duen muxua ziurrenik, baina Markelek aurrera jarraitu du: atea zabaldu eta alde egin du.

Kontxi ateari so geratu da. Zerbait esango ote zioten? Atea ixten ikusi badu ere, kolpeak izutu egin du.

Mikelek erlojuari begiratu dio, eta jarraian, bere emazteari.

—Katta, gaur amonarekin joango zara eskolara eta berekin bazkalduko duzue Markelek eta biok. —Aita ahots leunaz hurbildu zaio. Alabak kopeta zimurtu dio.

—Eta amatxo?

Amak irribarre txiki bat egin dio eta hegazkina balitz bezala ibili du airean. Aitak tximeleta muxua ema dio ma-sailean.

Amonari eskutik helduta agurtu ditu gurasoak, eta kolpe batez itxi da atea. Bigarren kolpea. Bigarren izua.

Hankak dardarka ditu oraindik Kontxik, arnasa bizkortuta eta korapiloa sabelean. Biloba besotik tiraka du dagoeneko.

—Goazen, amona! Goazen eskolara!

Atarira irtetearekin batera itxi da atea euren atzean. Hirugarren kolpea. Azken izua, espero.

Poliki jaitsi dituzte eskailerak. Hotz egiten du kalean. Kontxik bilobaren eskua estutu du orduan. Kattalinek inguruan duen edozeri begiraten dio, beti bezala, txundituta. Autoak, putzuak, zuhaitzetik jausi berri den hostoa. Eta guztiaz galdetzen du. Amonak atsegin ditu bere bilobaren galderak, baina gaur ez dauka burua horretarako.

Kontxik Junerengan pentsatu du.

Markel ere izan du gogoan.

Aurrera egin dute biek. Kontxi, bere pentsamenduetan murgilduta. Kattalin, zebra-bideko lerro zurien gaitetik akatsik egiten saiatu gabe saltoka.

MARKEL

Goiz hartan zerbait gaizki zihoan. Inork ez zion presarik sartu. Inork ez zion mugitzeko esan. Inork ez zion oiherik egin. Eta hori ez zen inoiz gertatzen.

Beti zegoen zarata etxe hartan: giltzak ahazten zitzaizkion norbaiti edo eztabaidan aritzen ziren txorakeriengatik. Halaxe izaten ziren goizak. Betiko goizak.

Baina goiz hura ez zen besteak bezalakoa izan. Etxea isilegi zegoen, argia joan eta hozkailuak burrunba egiteari uzten dion egunetan bezala. Buruak eztanda egingo ziola sentitzen zuen Markelek.

Kamiseta jantzi zuen, zuzen ari zen begiratu gabe. Sukaldera hankak arrastaka iritsi zen, etxeko txapinak lurra-
ren kontra gastatuz. Mahaia prest zegoen gosaritarako, baina ez zegoen inor mahai inguruan eserita.

Ama non zegoen pentsatu zuen orduan, ez zuen bertan ikusten. Aita sakelakoari begira zegoen, atzamarrik mugitu gabe. Amona jada euren etxean, eskuak aulki baten bizkarraldean zituela, haiekin zer egin ez baleki bezala.

—Goazen! —Arreba txikiaren ahotsak zarata isila hautsi zuen.

Auzoan baldosaz baldosa saltoka zebilen Kattalin. Ozenki zenbatzen zituen goizero. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zortzi... Egunero ahazten zitzaion zazpi zenbakia. Markeli dibertigarria iruditzen zitzaion, baina goiz hartan nahiago zuen bere arreba isilduko balitz. Gero ezetz pentsatu zuen, agian nahiago zuela Kattalini zenbatzen entzutea, isiltasuna baino.

Zenbaterainoko pisua izan dezake isiltasunak?

Aitaren autoan sartu ziren goiz askotan bezala. Kattalin aitaren atzeko aldean, bere aulkian, hankak zintzilik zituela. Markel, berriz, kopilotuaren eserlekuan. Jada ez da haur sentitzen, adin-nagusitasunerako lau urte besterik ez zaizkio geratzen. Hemezortzi betetzearekin batera gida-baimena aterako du. Lehendabizi motorrarena. Ondoren autoarena. Edo alderantziz. Edo biak batera. Eta piercing bat ipiniko du. Eta tatuaje bat egingo du. Eta etxetik kanpo joango da ikastera. Beno, agian ez; non etxean baino hobeto? Askok bidaiatuko du, hori bai.

Leihotik begira gauzak beti bezala daude: taberna bera, semaforo bera, sustraiak tokiz kanpo dituen zuhaitz bera. Horrek asko haserretu zuen. Ez da bidezkoa denak berdin jarraitzea!

Institutuan ere ez zen ezer arraroa gertatu. Eta hori izan zen arraroena. Saioak, jolasgaraia, ustekabeko azterketa. Dena normal. Dena berdin. Baina bera ez zegoen guztiz bertan.

Irteeran, amona zain zeukan. *Benetan? Kattaren bila joatea, tira. Baina nire bila INS-TI-TU-TU-RA etortzea? Soberan dago!*

Hori bai ez zela normala.

* * *

Sukaldean dilista usaina darion lapikoa dago sutan. Hemendik aurrera Kattalinek eta Markelek amona Kontxiren etxean bazkalduko dute, denboratxo batez bai behintzat.

Markelek garbi utzi dio amonari badakiela etxerako bidea. Ez da gai izan begietara begira hitz egiteko. Amona, amona da. Ez da ama, ez aita. Amona da. Baina ulertzekoa da, ezta? Zer esango dute lagunek institutu atarian amona ikusten badute?

Mahaian eseri eta jertsea kendu gabe koilara hartu eta dilistak jaten hasi da. Azkar ari da, beti bezala. Katta ere beti bezala dago: koilararekin dilistak dantzan ipiniz eta mihiari eraginez, hitz eta pitz.

—Zergatik ez dago amatxo hemen? Zergatik jan behar dugu orain zure etxean? Noiz joango gara berriz amarekin bazkaltzera?

Markel geroz eta bizkorrago ari da jaten. Azkar jaten badu, lehenago amaituko du. Zer baino lehenago?

Koilarak plateraren kontra egiten duen zarata atsegin du. Klink, klink, klink. Gaur normalean baino gehiagotan

eman dio platerari, maizago, ozenago. Horrek ez pentsatzen laguntzen dio. Edo agian ez. Ez daki.

Kattalinen galderak eta Markelen koilara-hotsak bat-batean isildu dira, amona Kontxi hizketan hasi denean.

—Maiteak, amaren gorputzean xomorro bat sartu da, xomorro lapur bat.

Markelek ez du begirada altxatu. Hortzak estutu ditu. Eta eskuan zuen koilara, hori ere estutu du. Begiak platerera iltzatuta jarraitzen du, altxatuko balitu loratu egingo zitzaizkiolako. Ez du hori gertatzerik nahi. Amorrua sentitzen du, haserrea. Eta mina. Baina errazago zaio haserrea azaleratzea.

Kattalini galdera gehiago piztu zaizkio orduan.

—Amari xomorro bat sartu... nondik? Belarritik? Sudurretik? Ahotik, agian? Nolakoa da? Handia? Hankak ditu?

Markel asko ari da urduritzen. Azken dilistak jaten ari da. Oraingoan, mantsoago. Bukatu arte ez du begirada altxatu beharko, eta horrek galderak ekiditeko aukera emango dio. Edo agian ez. Kattalin isiltzea besterik ez du nahi. Edo jarrai dezala hizketan, horrela amonak Kattalinen jarriko du arreta eta ez berarengan.

—Ez dakit nondik sartu zaion, baina amaren titian bizi da —esanez amaitu du amonak.

Kattalinekin ezin ditu begiak gehiago ireki.

—TI-TI-AN? —Inoiz entzun gabeko hitza balitz bezala errepikatu du aho-zabalik.

Markelek bere amaren titietan pentsatu du orduan. Biluzik irudikatu du. Eta lotsatu egin da, asko lotsatu da. Hainbestearaino, gorri-gorri eginda ipini baita. Irudia ezabatzen saiatu da.

Amonak hizketan jarraitu du, baina Markelek ez du ezer entzuten. Beno, tarteka hitz solteak. «Zaindu». «Medikuak». «Denbora».

Pentsakor dago. Amorratuta, haserre. Xomorro bat? Benetan? Ezin al didate normal hitz egin, eta ez hurrei bezala?! Amak minbizia du, bularreko minbizia! Hori da hitza: MIN-BI-ZI-A! Eta kitto!

Hitzak barrutik astindu du, eta hori ez duela ozenki esan. Inork esan ez badu ere, ahoan sumatu du, astun, arraro.

Hortzak garbitzera joan dira neba-arrebak.

—Markel, amatxo hil egingo da?

Galdera entzun izango ez balu bezala jarraitu du hortzak garbitzen Markelek; arin, bizkor. Eta ziztu bizian irten da komunetik. Motxila hartu eta badoa. Amona muxu bat ematen saiatu da. Markelek burua biratu du nahigabe. Edo nahita. Berak ere ez daki zergatik egin duen. Eskailetan behera pentsatu du, egun hartatik aurrera, ezer ez zela lehen bezala izango. Nork eskatu dio baimena bere bizitza horrela aldatzeko? Nork?

MIKEL

Ospitale bateko itxarongelara iritsi dira, kostata. Lurreko marra horiari jarraituz, labirinto batean murgildu dira biak. Helmugan garbi irakurtzen da: onkologia.

Eskuak izerditan, hankak erritmo bat markatu nahian eta elkarren alboan eserita, hantxe daude Mikel eta June. Elkarri zer esan ez dakitela, baina elkarren ondoan, inoiz baino gertuago, ez fisikoki bakarrik. Estu, larri.

Mikelen eskuinaldeko aulkian emakume bat dago eserita, buruan zapi koloretsu batekin. Irribarretsu begiratzen die bie. Zergatik dago horren irribarretsu? Albiste onen bat espero du gaurkoan? Tratamenduarekin amaituko du, agian?

Parez pare, emakume ilegorri bat dute, bekainak margotuta. Hau ez dago horren irribarretsu. Bakarrik dago, ez du inor alboan. Junek ez dio begirik kentzen, disimulurik gabe begiratzen dio. Zer ote darabil buruan? Berari ere ilea ereriko zaio? Berak ere ileordea ipiniko du? Ala nahiago izango du zapia? Agian ez zaio ilerik ereriko... Ez zaie guztiei erortzen, ez? Ala bai?

«June Goenaga Azkarate? Aurrera!».

Mantal zuriko gizon hark izen-abizen horiek ahoskatzearekin batera, eskua eman diote elkarri Junek eta Miekelek. Elkarrekin altxatu dira. Elkarrekin eman dituzte kontsultara iristeko zortzi pausoak. Eta elkarrekin eseri dira medikuaren aurrean, onkologoaren aurrean.